



**Udal aldizkaria**

**2019ko maiatza. 9. alea**

Lege-gordailua: DL NA 2406-2015

## **AURKIBIDEA**

**MENDIA 2**

**UDALA 3**

**TURISMOA 4**

**HIRIGINTZA 5**

**GIZARTE ZERBITZUA 6**

**KOMUNIKAZIOA 7**

**KULTURA-EUSKARA 7**

**BESTELAKO LANAK 8**

“Alor guztietan egin dugu lana herria  
eta herritarrengan pentsatuz”

# **BUKATU DA 2015-2019 UDAL LEGEALDIA**

Proiektu handiak nahiz proiektu txikiagoak  
aurrera ateratzen egin dugu lan 4 urte  
hauetan. Hementxe laburpena



Goizuetako Udala



# MENDIA

## ZUHAITZAREN EGUNA

2 urtez egin da eta oso aberasgarria eta pedagogikoa izan da eskola eta udalaren artean antolatutako ekintza hau.

## ARTIKUTZA ZEC DEKLARATU DA

2016 hasieran, Artikutza Kontserbazio Bereziko Leku (Zona de Especial Conservación) deklaratu du Nafarroako Gobernuak. Donostiako Udala eta mugako herriek batzorde bat sortu dute azindak libre izan dezaten Artikutzako belardietan ibiltzeko.

## SUTEAK



Legegintzaldiko arazo handienetako bat izan da suteen gaia. Filosofia aldaketa bat egon da, suak ihes egitetik mendiari kontrolatu gabe su ematera. Tristeia eta gogorra 20 urteko hariztiak, baseritarren bordak... kiskaltzen ikustea. Udal landaketei dagokionez, 730.292,15€ko galera egon da. Eskertzekoa eta eredugarria izan da herriarren erantzuna eta lanerako prestutasuna.

## SUBASTAK

Pinu sail handien salmentak bukatu ziren Udalarentzat; espezie desberdinen entresakak dira epe motzean mendiko sarrerak. Kosta da mendiko loteak saltzea, subastak behin baino gehiagotan desertu geratu baitira.

## KONTUAK (KANPAINAK)

Landaketetan egiten den esfortzu ekonomikoa handia da. Baina hala ere, garbiketak dira helburu nagusia. Bi-deetako infraeskturek txukuntzen ere gastatu da dirua.



LANAK	UNIT.	INBERT.	SUBENT.	% OBRA	URTEA	MENDI SALMENTA	NORI
LANDAKETA	98,95	295.688,69€	219.353,20€	%53	2014	458.240,00 €	EGURANGA
FALTAK BIRLANDATZEA	27,30	20.974,90€	17.157,77€	%4	2015	292.030,20 €	CENTRAL FORESTAL
UDAKO GARBIKETA	430,98	146.357,01€	86.843,12€	%26	2016	84.841,12 €	XAROBEBERDABIO
KM ITXITURA KENDUAK	17,69	25.431,59€	15.763,38€	%5	2017	0,00 €	-
KM PISTA EGOKITZEA	13,95	68.261,06€	31.027,75€	%12	2018	100.000,00 €	TELLETXEA
	<b>Guztira</b>	<b>556.713,25€</b>	<b>370.145,22€</b>				

## AURREKONTUAK-KONTUAK

Mendiko diru-sarrerak murriztu direnez, udal remanenteaz finantziatu behar izan ditugu egindako inbertsioak. Aurrekontu moldaketekin lau urte hauetan 450.888,12€ erabili ditugu remanentetik; gaur egun, 1.243.108,65€ geratzen dira.

Bestalde, zerga eta tasen morositatea murrizteko asmoarekin dirubilketa exekutiboan lan asko egin da.

URTEA	AURREKONTUA	GASTATUA	GASTATUA (%)	REMANENTEA	(ALDAKETA)
				1.693.996.77€	
2015	1.325.780,00 €	811.321,14€	61,20%	1.704.058.01€	10.061,24 €
2016	1.501.836,50 €	1.193.539,78€	79,47%	1.569.184.19€	-134.873,82 €
2017	1.771.039,18 €	1.425.223,78€	80,47%	1.288.710.95€	-280.473,24 €
2018	1.552.575,14 €	889.355,09€	57,28%	1.243.108.65€	-45.602,30 €

## INBERTSIOAK

Askotariko inbertsioak egin ditugu, desertu geratzeagatik egin gabe geratuak ere suertatu dira eta 2019an egiteko prest daudenak baita. Hemen azpimarragarrienak:

URTEA	Inbertsioa	AURREKONTUA	DIRULAGUNTZA	%	NORK EMANA	KOSTUA
2016	Plazako zolaketa	335.616,12	182.497,90	54%	PIL	153.118,22
2016	Gaztetxeko teilatua	72.961,85	0,00	0%		72.961,85
2017	Zabortegeko obra	639.819,80	523.347,37	82%	PIL	116.472,43
2018	Kale argiteria	77.356,10	46.413,66	60%	IFS	30.942,44
2018	Azoka teilatua	21.975,83	12.016,38	55%	UMORE ONA	9.959,45
2019	Gaztetxeko barrena	123.050,82	50.000,00	41%	PDR	73.050,82
2019	Eskola, kaldera gela	81.189,00	52.772,85	65%	HEZKUNTZA	28.416,15
2019	Udaletxea, igogailua	116.307,12	67.285,11	58%	PIL	49.022,01
2019	Beko Landa	99.194,90	26.649,27	27%	GALDUA	99.194,90

## BESTELAKO GAIAK

**GOIKO FRONTOIA:** obra zuzendariari erantzukizun eskaera egina zaio.

**GOIZUKOOP:** Lur zesioa egin zaio eta 72.000€ko mailegua eman.

**KATASTRO BALORAZIO PONENTZIA:** Legeak eskatuta, berritzeko lanak martxan daude.

**ORDENANTZAK:** 1) Lokalerabilera: berria egin da. 2) Mendipistak: berritu egin da. 3) Ezgaituak aparkatzeko txartela: berria egin da. 4) Agiriak: berritu egin da, konpultsak egitea doainik jarritz. 5) Animalia arriskutsuak: berria egin da. 6) Autoenplegua: berria egin da. 7) Hilerrria: berritu egin da tasak eguneratuz.

**ELKARTASUNA ELKARTEA:** Funtzionatzen ez duenez eta Gobernuaren finantzaketa lortzeko oztopoa zenez, 2018an desegin egin da elkarte, ondasunak udalari utziz.

**IRALEKUEN HITZARMENA:** Eskrituretako informazioa jasotzeko lanetarako enpresa bat kontratatu da. Azken urte honetan lanean dabil.

**ZERBITZUAK:** Pediatra eta anbulantzia zerbitzua gai korapilatsuak izan dira.

**ERREBIDEA:** Ixkibi eta Urraidako kurba arriskutsuak kendu dira eta Goiko Zentralekoarekin lanean gabiltza.



# TURISMOA

## MEGALITOAK

Lan handia egin da kultur ondare garrantzitsua dugun monumentu megalitikoaren ibilbideak txukuntzen. Material asko berritu edota zaharberritu da: panelak, posteak, seinaleak, planoak eta triptikoak. Guztira, 5.721,36€ko gastua izan da.

## ARTIKUTZA

Artikutza, Goizuetako baliabide natural aberatsena izanik, baliabide turistiko bezala aprobetxatu nahi da, eta horregatik, Goizuetatik duen sarrera egokitu da. Zabor-tegia zegoen lekutik hasi eta 900 metro inguru asfaltatu da bidea eta NA-4150 errepidean (Leitza-Goizueta-Hernani) seinaleak jarri dira Artikutzara nondik joaten den erakusteko. Guztira, 104.333,33€ko gastua izan du, baina PDRko 50.000€ko dirulaguntzari esker, 54.333,33€ kosta zaio Udalari.

## BESTELAKOAK

**Postalak:** Herrira datozen turistek Goizuetaren irudia zabaldu eta kideei bidaiaren berri bidali diezaioten, postal turistikoak egin dira. Ander Olaizolaren 3 argazki erabiliz. Estankon, Zubimuxun eta udaletxean daude salgai. Postal bakoitzak 1,10€ balio du. Oroigarri polita!

**Herriko planoak:** Paneletan jarrita daude herriko puntu nagusiak eta interesguneak non dauden markatuta, herriari buruzko informazio orokorra...

**Praktikaldia:** Aizpea Lujanbio Otaño, animazio soziokulturala eta turismoko ikasleak Lanbide Heziketako praktikak egin zituen 2018ko martxotik maiatzera.

## IBEROKO DORRETXEA

Erdi-Aroko burdinola hau berritzeko Nafarroako Gobernuak 584.975,03€ko inbertsioa egin zuen 2017an, bai dorrea eta baita zubia moldatzeko ere. Ondare garrantzitsu hau berritzea garrantzitsua izango da eskualdean garapena eta turismo jasangarria bultzatzeko.

## ATERPEA

Zubimuxu aterpearen kudeaketa udaletik atera eta norbaitek hartzeko saiakerak egin badira ere, ez da emaitza onik lortu. 2017 eta 2018ko lizitazioak desertu gelditu ziren eta 2018ko udarako langile baten kontratazioa ere bai. Aipatu behar da, 2017an sukaldearen obra egin zela 13.519,56€ko inbertsioa eginez eta aktibitatea bera ere sendotzen ari da.



URTEA	GASTUAK
2016	5.375,31€
2017	5.219,36€
2018	4.429,51€

SARRERAK	2016	2017	2018	SARRERAK	2016	2017	2018
Urtarrila	405,46€	128€	191€	Uztaila	420,91€	840€	3.049€
Otsaila	635,46€	225€	928€	Abuztua	1.625,45€	1.353€	1.528€
Martxoa	815,45€	611€	1.109€	Iraila	260€	801€	498€
Apirila	345,45€	231€	1.931€	Urria	595,45€	935€	585€
Maiatza	1.261,82€	866€	755€	Azaroa	623,63€	2.136€	763€
Ekaina	544,55€	305€	807€	Abendua	410,91€	1.741€	1.176€
				<b>Guztira</b>	<b>7.944,54€</b>	<b>10.172€</b>	<b>13.320€</b>

## HIRIGINTZA

### BIDEGORRIA

Errotatik Malenera bitarteko bidegorriaren zatian, hobekuntza batzuk egin dira, horien artean dago barandila jartzea. Guztira 2.905€ko gastua izan du eta udal langileek egin dute. Bidegorriaren 2. zatiari dagokionez, Malenetik Olatxora doana, proiektua egin dago eta iada egiteko prozesua martxan jarria dago.




### PLAZAKO LUR ZOLAKETAK

2016ko udaran egin ziren plazako lurra berritzeko lanak eta 335.616,12€ko inbertsioari aurre egiteko, Toki Inbertsio Planetik (Plan de Inversiones Locales) 182.497,90€ko diru laguntza jaso zuen udalak (%54,38).



### ARGITERI PUBLIKOA

Azken hilabete hauetan herriko argiteria aldatzen dabiltza. LED motako argiak dira eta udalak, urteroko gastuan %60 aurreztea aurreikusten du.



### GOIKO ITURRIA

2016an pasabidea berritu zuten udal langileek eta 2019an Laxaro Apezetxeak iturrira joateko bidexka egin du. Bi obra txiki hauei esker, oso txukun dago Goiko Iturri. Hemendik eskerrik asko Laxarori egindako lanagatik!



### OBRA TXIKIAK

2016an Mertxeneko iturria berritu zen. 2018an Maleneko zubia konpondu zen eta eskolan iturri berria jarri zen, Txantxeneko zubia eta Zubi haundia ere moldatu dira, baita hilerriko sarrera ere.



# GIZARTE ZERBITZUA

## LOKAL BERRIA

2016an gizarte arloko zerbitzuari erantzuteko, lokal berria ireki zen Goizueta eta Aranoko herritarrentzat. 29.689,27€ kostatu zen. Zerbitzu publikoa dela kontuan hartuz, doako zehaztasun egin zion udalak Gizarte Zerbitzuari.



## TAILERRAK

**Gizon tailerra:** gizonei zuzendutako tailerra "Ohitura osasuntsuak" izenburupean egin da. 2017koan 9 pertsonak hartu zuten parte eta 2019koan 10ek.

**Autodefentsa tailerra:** emakumeei zuzendutako tailerra 2018an egin zen.



## PROIEKTUAK

**Bhutantxo:** elkar zaindu eta errespetua bultzatzea helburu duen proiektua da. 2017an jarri zen martxan eskola, komertzioak, zerbitzuak eta herritarrak elkartuz.

**Jubiloteka:** Jubilatuek ariketak, memoria, eskulanak... egiteko eta lantzeko espazioa da. 2018an jarri zen martxan eta 7 pertsonak izena eman zuten.



## HITZALDIAK

Hainbat gairen inguruko hitzaldiak antolatu dira eskolarekin elkarlanean: haur transexualitatea, genero rola eta estereotipoak...



## BABESTURIKO GIZARTE LANGILEAK

Gizarte eskubide sozialen sailak lortzen duen diru laguntzari esker, azken urteetako udako hilabeteetan, udalarentzat lanean aritzen den pertsona bat kontratatu da. Langile honen perfila bi urte baino gehiago lanik gabe gotea eta errenta bermatua izatea dira.

## EMAKUMEEN PARTE HARTZEA AZTERTZEKO BEKA

Beka honen helburua 1.950. urtetik gaur egunera arteko Goizueta eta Aranoko emakumeen parte hartzea aztertzea da. Leitzako bi emakumek lortu dute beka eta azken hilabeteetan Goizueta eta Aranoko herritarrekin eta artxiboan barrena dabilta informazioa bilatu eta ikerketa egiten. Beka 4.200€koa da.



# KOMUNIKAZIOA

## SAREAN

Komunikazio alorrean ezagutzak dituzten herritar bazuekin lan taldea osatuz, webgunearen egitura eta informazio eskaintzak nolakoa izan behar duen erabaki eta webgunea osatu da. 2.265€ kostatzen da sortzea, 214€ itzulpen lana eta 180€ urteroko mantenua. Goizueta.eus gure atari propioa izateaz gain, facebookeko orria ere badugu, 240 jarraitzaileekin.

## PAPEREAN

Interneten ez dabilzan herritarrak ahaztu gabe, "Goizueta informatzen" aldizkaria sortu da, 3-4 hileroko argitaratu dena. Guztira 9 ale egin dira eta etxez-etxe banatu da. Herriaren itxura zaindu eta ekitaldi nahiz bestelako informazioaren zabalpen txukuna egiteko, panel informatiboak ere jarri dira herrian. 5 panel guztira, 2.900€ gastatuz. Eskualdeko prentsari begira, Urumeako Kronikarekin hitzarmena egin da urtero 500€ko dirulaguntza emanaz.



# EUSKARA

Nafarroa Iparraldeko Euskara Mankomunitateak euskaltegiekin duen hitzarmena eta euskara ikasteko ordenantza herri txikien errealitateara egokitu da eta 2007-2008 ikasturteaz geroztik ateratzea lortu ez den euskara taldea sortzea lortu da 2018-2019 ikasturtean. 7 ikasle dabilza klaseak jasotzen; 6 ikasle 1. urratsean eta ikasle bat autoikaskuntza bidez B1 mailan.

Udaleko euskara erabilerari dagokionez, UEMAren "ton-torrean" maila lortu dugu.



# KULTURA

2016an egindako Ekitaldien Bildumako hausnarketaren ondorioz, 2019an Azaro Kulturala alde batera utzi eta Kultur Agenda urte guztira zabaldu da. Kultur taldeak egin duen lanari esker, 3-4 hilabeteko, kultur proposamen desberdinak ditugu herrian kulturaz gozatu ahal izateko. Kultur emanaldi berezi bezala aipatu nahi ditugu 2017an egindako "Goizuetan bada" Trabukoren antzezlan, Kattarrapikaka lehiaketa eta Nazioarteko jaia.





# BESTELAKO LANAK

## TIFANITXO

2017an PDR dirulaguntza lortu ez bagenuen ere, 2018an Elkartasuna Elkarte disolbatu eta 2019an Tifanitxo berritzeko dirulaguntza lortu da. Proiektua egina dago, beraz, gauzatzea geldituko ditzateke, datorren legealdian egingo dena.

## GOIZUETA BIZITZEN

Herriaren hustutzea eta bizirik mantentzearen aldeko kezka nagusitzen den honetan, hainbat dinamika eta hausnarketa bultzatu dira:

**Bertan kontsumitzearen aldeko kanpaina:** “Berta(n) bertakoa, Goizueta(n)” boltsak etxez-etxe banatzea.

**Etxebizitza eta lokalen inguruko lanketa.**

“Goizuetan lan eta bizi” esperientzien jardunaldiak.

**Autoenplegua** sustatzeko ordenantza eta dirulaguntza.

## PARKEAK

Plazakoa berritzearen gastua 13.371,71€ izan da. Eskolakoa berritzeko, berriz, plazako bi kolunpio aprobeztatu dira eta gainera 8.151,77€ gastatu dira. Guztira, 21.523,48€.

## AUZOLANA

Auzoetako pistak eta errekek garbitzeko hainbat deialdi egin dira. Udalak aseguruua, erremintak eta hamaiketakoak jarri ditu.

## ERAGILEEN ERRONDAK

Herriko eragileekin bilera errondak egin dira. Urteroko diru laguntza kantitate fijoia izatetik, antolatzen dituzten emanaldi guztien%40 ordaintzera pasa gara.

## BASERRIETAKO SEINALEAK

Eskolako sarreran eta udaletxeko orapean jarrita dauden Metrobaserri plana, baserrietako seinaleak eta Helpbidea plakak egin dira. Guztiaren aurrekontua 20.645,05€koa da baina Nafarroako Gobernuaren 11.394,94€ko diru laguntzari esker, gastu garbia 9.250,11€koa izan da.

## KIROL INSTALAZIOAK ETA ESKAINTZA

Alde batetik, dantzen lokala berritu da, gimnasioan aparatu berriak jarri dira eta kirol eskaintza zabaldu da ikastaro berriak eskainiz; total training, pilates eta jumpfit klaseak.

